

“Euskararekin Lasarte-Oria irabazle”

A terpea merkatarien elkarrekin, Deco 42 tapicerías dendak, Eziphoto estudioak, Labego okindegiak, Michelin kontsumo kooperatibak eta Lasarte Parafarmaziak euskara plangintza integrala jarri dute abian. Lagunak elektrizitate dendak eta Xule fisioterapia zentroak aldiz ziurtagiriaren hitzarmena sinatu dute. 2010eko plangintza eta ziurtagiriak sinatzeko ekitaldia asteazkenean egin zen kultur etxean eta Iñaki Mugica Euskara Batzordeko lehendakari bezala estreinatu zen.

“Euskararekin, zeu irabazle” leloa darabil Udalak aspalditik eta horixe da euskara plangintzak marbxan jartzearen abiapuntua. Mezuarekin bat egin eta zerbitzua euskaraz ere emanaz bezero batzuen aitoren eta esker ona jasotzen dutela. Asteazkenean Kultur Etxean euskararen erabileraren aldeko hitzarmena sinatu zuten kontuan izanik guztira 67 establezimendu eta enpresa dira Lasarte-Orian euskara plana daukatena.

Batzuk euskaraz zerbitzua ematen hasteko bidean jarri

dira eta besteak jada zerbitzu osoa euskaraz emateko gai direnez, Euskara Ziurtagiria erregulatzeko hitzarmena sinatu zuten.

Udalak, herritarren eskubideak babestu eta legeak dioena betearazteko, laguntza ematen die prest daudenei euskararen erabilera normalizatzeak eskatzen dien lan karga arintzen, besteak beste, aholkularitza, itzulpengintza edota enpresaren irudia-errotulazioa elebitan jartzeko diru laguntzetan.

Erabaki garrantzitsua

Ekitaldian, Iñaki Mugica, Lasarte-Oriako alkateorde eta Euskara Batzordeko lehendakari berriak enpresen kalitatearekin lotu zituen hitzarmenak batetik, bere jarduerak tokiko hizkuntzan eskaintzeak dakarrien hobekuntza aipatuz, eta bestalde, zera aipatu zuen, legeak herritarrei harreman komertzialetan bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzeko eskubidea aitortzen diela.

“Lasarte-Oriako Udalaren helburuetako bat da aurrekoa gauzatzen laguntzea” esan zuen eta zerbitzu osoa bi hizkuntza ofizialean emateko



Herriko sei egitasmok euskara plana daukate asteazkenetik eta beste bik zerbitzu osoa euskaraz emateko hitzarmena.



gauza izan daitezen Udalak enpresei eskaintzen dizkien laguntzak aipatu zituen.

“Gaur sinatzen duzuenok oso erabaki garrantzitsua hartu duzue eta etorkizunari aurrea hartuta ari zarete hizkuntza gaiak egunean jarriz. Horrela

jarraituz lortuko duzue herriko biztanle askoren begirunea eta haietako asko zuen bezero izatea” esan zien hitzarmenean parte hartu zutenei.

Hauen izenean Lourdes Sarasola Michelin kooperatibaren zuzendaritzako kideak hitz

egin zuen, zerbitzua euskaraz emateko duten borondatea eta zailtasunak nabarmenduz eta langile batzuk euskaraz ez badakite ere jarrera ona dutela aipatuz. Udalarekin elkarlanean asko aldatu gabe pausu handiak eman dituztela esan zuen, ez dela zaila eta bezeroarekin askotan gertutasuna lortu dutela.

Bukatzeo Marifer Gorostizak hartu zuen hitza Lasarte-Orian euskaldun baino erdaldun gehiago dagoela aitortuz: “errealitatea hori da, baina egia da gero eta euskaldun gehiago dagoela, eta “euskararekin zeu irabazle” esaten dugunean benetan esaten dugula, sinetsita, badagoe-lako bezero potentzial bat, euskaraz hartuz gero eroso sentitzen dena”. •



Telebistan emateko iragarki bat filmatu berri dute Balerdi harategian /3

GIZARTEA/3

Prestatzen ari dira jada, uztailaren 26, Santa Ana eguneko ospakizunak



Gabriel Nogues dendariaren ustez herriko komertzio ororen etorkizuna beltza da /4-5

SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Neure kabuz



Kolore kontuak

Kolorez josiriko uda dugu aurtengoan, beltza nagusi bada ere. Beltza, bai, Gorriek, gorritz ahalik eta azkarren margotu nahi duten beltza. San Ferminetako pankarten moduko beltza. Langabezia. %19,7. Lan erreformak. Kaleraketen merkezeak. Prekaritatea. Ekainak 29. Udalbiltza. Auzitegi Nazionala. Gorritz eta horiz. Roja y gualda. Selektzioa. Garaipena. Hegoafrika. Naziotasuna. Batzuen, behinik behin. Nazioak. Selektzioak. Beltza.

Gorri eta hori gehiago ere badira. Ez lehenagokoen modukoak, ordea. *Vermell i groc. Som una nació. Tenim el dret de decidir.* Baita gorri, txuri eta berdeak ere. *Nazioa gara. Autodeterminazioa.* Koloreak. Beste askorekin batera. Hauek ere gorritz, gorri hutesz estali nahiekoak. Futbola. Opioa.

Kolore festa, beraz. Ezkutu nahi badira ere. Berdea. AHT. Superportua. Erraustegia. Zubieta. Lila eta ortzadarraren koloreak. Erasoak. Eskubideen aldarrikapenak. Urdina. Abortoa. Eta arrosa. Telebista piztu besterik ez. Beltzak, zuriak, horiak... nahi adina, gure herrian bertan. Aniztasuna.

Gorriak laranja garaitu zuen. Orain, 600.000 eurona trukean bakoitzarentzat. Gure artean, beltzak nagusi izaten jarraitzen badu ere. Gorritz margotu nahi izan duten beltza. Prentsan. Tebistan. Interneten. Gure egunerokotasunean. Poltsikoa diruz beterik dutenek hondoko iluntasunari ez behatzeko gomendatzen jarraitzen dute hala ere. *Por dios, la patria, el rey y la roja.*

Taxio Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Naiara

Zorionak pixxitxi zure 2. urtebetetzean, familiarren partetik. Txokomarrubizko muxuak.



Ander

Zorionak pottoko! Zazpi txokolatzeko muxu goxo familiarren partetik.



Ainhoa

Zorionak eta mila muxu, zure bi piraten partez. Noiz hurrengo parranda?



Maider

Ettxeko txikiari zorionak, eta 7 muxu nahi. Ondo pasa, aita, ama eta Aneren partetik.



Maider

15 muxu zure familia eta lagunren partetik. Zorionak eta ondo pasa eguna.



Alex

Zorionak zure 3. urtebetetzean familia guztia- ren partetik.



Eider

Zorionak politta!!! Ondo pasa zure egunean eta txokomarrubizko 22 muxu haundi!!!



Malen

Zorionak sorgina! Txokomarrubizko muxuak zure 4. urtebetetzean! Udane, aita eta ama.



Ana

Zorionak eta 36 muxu handi Bon Jovi- ren partetik.



Amatrix

Zorionak amatrix, muxu handi bat Ane, Unax eta Aitaxoren partetik.

Jaiotzak

- Danel Lopetegui
- Monzón,
- uztailaren Sean
- Maider Olasagasti Esquisabel,
- uztailaren 3an
- Laura Casado Sánchez,
- uztailaren 2an



Heriotzak

- Juanjo Arsuaga Lekuona, uztailaren 6an 58 urte zituela.
- Jose Manuel Toquero Curiel, uztailaren 8an 70 urte zituela
- Maruja Sánchez Arias, uztailaren 11ean 66 urte zituela



Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

• Uztaila eta abuztuan, Landetako Vieux Boucau herrian dagoen "Le Boucanier" urbanizazioan estudioa alokatzen dugu, 700 euro astea. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 626 614 111 telefono zenbakira.

• Lasarten etxebizitza alokatzen da. Prezioa 850 euro. Harremanetarako zenbakia, 662 332 848.

• Apartamentua alokatzen dut Jakan uda osoan. Bi logea, igerilekua eta garajea. Harremanetarako telefono zenbakia: 639 659 583.

Salerosketak

• Garage bat alokatzen da Libertoko eraikinean, interesatutak deitu 667 812940 telefonora.

• Landaberi ikastolan 1go DBH- rako erabiltzen diren liburua- k sal- tzen dira. Bigarren eskukoak dira eta bere erdi-prezioan sal- tzen dira. Harremanetarako zenbakia, 667 731 346.

• Taxi lizentzia bat salgai Usurbilen, jubilazioagatik. Interesatu- ek Gipuzkoako Taxi Elkarte- an esku- ratu dezakete informazio gehi- ago eta egin beharrekoak. Harre- manetarako zenbakia: 943 465498.

Lan-eskariak

• Ettxeko lanak, haurrak edo per- tsona helduak zainduko nituzke, bi egunetik bat. Harremanetarako zenbakia, 647 614 537.

• Emakume bat eskaintzen da ettxeko lanak egiteko. Esperien- tziaduna. Harremanetarako zen- bakia: 657 791 506.

• Umeak zaintzen ditut nere etxean, Lasarte-Orian. Uztaila eta abuztuko hilabetetan astelhe- netik igandera eta honako ordute- gian, 10:00etatik 15:00etara edo 18:00etatik 22:00etara. Harre- manetarako zenbakia, 693 601 222.

• Pertsona arduratsuak adinduak eta gaixoak zaindu, atezain lanak edo bestelako lanak egingo lituz- ke. Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Harremanetarako zenbakia, 680 983 527 (Carlos).

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112

Udala

- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 16

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 17

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 18

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 19

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteartea, 20

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 21

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 22

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucha, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Santa Ana eguneko ospakizunen antolaketa abian



lazko parodian, *Patxi zaharra* berpiztu egin zen. Ea urtegoan zein bitxikeri gertatzen den parodian.

Santa Ana parodiak, guk ezagutzen dugun bezala, 60 urte beteko ditu aurturten, uztailaren 26an, eta dagoeneko Ttakun Kultur Elkarte murgilduta dago Santa Ana Eguneko ekitaldien antolaketan.

Ohitura denez, Brigitarren Komentuko mezarekin hasiko dira Santa Ana eguneko ospakizunak 11:00etan. Ondoren, Ttakunek antolatutako luntxa dastatu ahal da Brigiten plazan eta eguerdian, Santa Ana Karkabaren aurrean agurrak dantzatuko dute Erketz Dantza Taldeko dantzariak.

Parodia musikala

Baina eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak eta sonatuena gaueko 22:30ean hasiko den Parodia da eta aurturten ere Santa Ana eguneko parodia Isla plazan egingo da, Zumaburur, Okendo plazan lanak egingen ari baitira oraindik.

Berrikuntzarik aipagarriena aurtengoan parodia musikala izango dela da eta azken

urtean herrian gertatutako kontu garrantzitsuenak errepasatuko dira, hala nola, TDTa, alkate aldatzea, herriko jaiak... baina antolatzaileek ez dituzte datu gehiegi zehaztu nahi, sorpresak ez zapuzteko.

Aurturten gidogintza lanetan Pablo Barrio, Idoia Garzes, Jokin Ayerregarai eta Martin Anso aritu dira.

Parodian parte hartuko duten guztiak (berrogei aktore inguru, dantzariak, musikakak,...), laurogei lagun inguruk, afari ederrez gozatuko dute Saustatxo elkartearen.

Bapo afaldu ondoren, 21:30ean Andatza plazatik irten eta, Parodia iragarri, desfilea egingo dute guztiak herriko kaleetan zehar Isla plazara.

Aurturten ere Okendo plazan lanak egingen ari dira eta Santa Ana Parodia Zumaburuko Isla plazan antzetzuko da.

Omenaldia

Baina antzerkia egin baino lehen, omenaldia egingen da

urtero. Aurturten Exikio Perez izango da omendua. Exikio hainbat eta hainbat urtetan herrian antolatutako ekitaldi eta festak grabatzen jardun baita.

Omenaldiaren ostean, antzerkia izango da nagusi Isla plazako oholtzan. Santa Ana eta San Joakin, Basajaun, epailea eta abokatuak akusatuei egotzitako karguak entzun eta epaia emango dute. Ea akusatuei libratu edo erretzen dituzten!

Entsaioak

Herritarren batek parte hartuko nahi balu Santa Ana Parodian, ongi etorria izango da eta horretarako Ttakuneko bulegotik pasatzea besterik ez du (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu 943 371448 zenbakira edo kultura@ttakun.com helbidera mezu bat bidali.

Parodiako entsaioak Manuel Lekuona kulturetxean izango dira uztailaren 19tik 23ra arratseko 19:00etatik 21:00etara. •



Arg.: Zabaleta Auzoa

Zabaletako auzotarrek adi entzun zituzten konpostajeari buruzko azalpenak.

INGURUGIROA

Konpostari buruz ikasten

Imanol Azpiroz San Markos mankomunitateko presidente ordea izan zen uztailaren 7an, Zabaleta auzoan.

Auzotarrak Azpirozek konposta eta konpostajeari buruz eskaini zuen ikastaroa entzuzera hurbildu ziren.

Honetaz gain, azteazken honetan, bilera bat egin dute auzoan, autokonpostajea antolatzeko. •



Arg.: T. Arruti

GIZARTEA

Ikurrina Buruntzan

Urtero legez, larunbatean, uztailaren 10ean, Basaundi auzotik atera eta lagun talde bat igo zen Buruntza mendira. Helburua, ikurrina gurutzean jartzea.

"Lagun arteko gauza da, normalean maiatzan edo ekainan egiten dugun ekintza da, baina aurturten uztailaren egun dugu," adierazi digu antolatzaileetako batek.

Ikurrina jarri ostean, auzora jaitsi eta indarrak berreskuratze-ko, hamaiketako egin zuten Buruntz-Azpi elkartearen. •



HARRI TAILUA

Celestino Riveraren azken lanak

Bere herriko armarrria, Salamankako Alcaraz herrikoa eta Donostiako Frantziako paselekuko iturriko eta Mallorcako hotel bateko iturrien irudiak dituen murala dira Celestino Riverak herrian egindako azken lanak. Celestinok berak azaldu digunez, bi hilabetetan eta kare herrian egindakoa lanak dira.

Honetaz gain, bere herriko jaietan margolari batzuekin batera erakusketara jarriko duela eta bere hurrengo proiektua zurean egingo duen Picassoren *Gernika* izango dela ere aipatu digu. •

Balerdi harategia eta Martin Berasategui Campofrio-ko hurrengo iragarkian

Ekainaren 25ean, Geltoki kaleko Balerdi harategia eta urdaitegian Martin Berasategi sukaldaria egon zen eta honekin batera, grabazio talde bat. Izan ere, *Campofrio* marka ezagunak zinematan eta interneteko orrialdean botako duen iragarkiko eszenatokia izango da Balerdi harategia. "Estatuan bila zebiltzan eta duela hiru egun jakin arazi ziguten gure harategian egingo zela iragarkia. Dirudienez landa-dekorazio duelako gustuko dute," azaldu digute Balerdiok. •



Balerdi harategia eta urdaitegia lagunak Martin Berasategirekin.

Gabriel Nogues / Aterpea merkataritza elkarteko kidea

“Lasarte-Oriako komertzioak etorkizun beltza dauka”

Egun herriko Aterpea merkataritza elkartean 29 denda daude; hasieran, aldiz, 50 bat inguru ziren

Hamar urte baino gehiago igaro dira Aterpea elkarte Lasarte-Orian sortu zenetik. Helburua, herriko denda guztiak batzea eta euren arteko elkartasuna bultzatzea. Eskakizunak bideratzeko taldeak indar gehiago dauka, eta hori argi daukate. Komertzioak egun bizi duen egoeran ere leku izaten laguntzen dio.



65 urteko historia dauka Nogues jostundegiak. Herriko eboluzioa hurbileki ikusi dute.

Gutxiu diren arren, egun 29 denda gelditzen dira Aterpea merkataritza elkartearen barnean. Hauetako bat Nogues jostundegia du. Herrian geratzen den komertzio zaharrenetarikoa, ez baldin bada zaharrena. 65 urte dira jada herrian atean zabaldu zituenik. Herriaren bilakaera, industrializazioa, merkatal gune handien sorrera... gauza ugari ikusi dituzte euren dendetarik bai Gabriel Nogues aitak, eta baita Gabriel Nogues semeak ere. Gu azken honen elkartu gara.

Hor lanean zegoela, inguruko emakume bat ezagutu eta ezkondu ziren. Euren ogibidea, gurdia oihalez bete eta baserrietan denda du. Herrian geratzen den komertzio zaharrenetarikoa, ez baldin bada zaharrena. 65 urte dira jada herrian atean zabaldu zituenik. Herriaren bilakaera, industrializazioa, merkatal gune handien sorrera... gauza ugari ikusi dituzte euren dendetarik bai Gabriel Nogues aitak, eta baita Gabriel Nogues semeak ere. Gu azken honen elkartu gara.

Noiz sortu zen jostundegia?
Nire aita gaztetan Iruñeko Salesianoetara bidali zuten jostintza ikastera. Bere arrebetako semeak eta guita Gabriel Nogues semeak ere. Gu azken honen elkartu gara.

Berak arropak neurria egiten zuten, egun horrekin jarraitzen duzue?
Ez, egun ez ditugu neurria egiten. Orain dena industrializatua da. Orain dela urte ugari utzi nion jostun izateari. Ekonomikoki ez zen bideragarria, lan asko zen kobratzen genuenaroko. Gainera trajeak hementiaren dendarri ezin nion behar adina atentzioa eskaini. Beraz, dendarekin jarraitu eta jostintza utzi nuen.

Zein erosle mota dituzte?
Normalean bezero finkoak dira gureak, bizitza guztiokoa. Hau da, neurria egindako trajeekin hasi zirenak eta gero dendan erositen jarraitu dutenak. Usurbidirik, Billabonatik, Andoainetik etortzen dira bezeroak, baina normalean Lasarte-Oriako jendea izaten dugu Nogues dendan.

65 urtez irekita, nola eragin izaten zuten merkatal gune handien irekierak?
Urtil jarri zutenean asko nabaritu zen herrian. Salmentak gutxitzeaz gain, herriko giroak ere gutxira egin zuen. Nuegan herria isolatuta geratzen da. Egunaldi txarra egiten badu, umeak hartu eta estalia daogen Urbilera jozen

dute herritarrak. Han denetarik dute, eta oso ondo prestatua. Beraz, komertzioetaz gain, herriaren bizi soziala ere kalte-tu du Urbilek.

Zenbat urte daramazkizu zuk dendan?
15 urterekin hasi nintzen ni jostintza ikasten. 18 urterekin soldaduska egiteko deitu zidaten eta beraz, ikasketak alboratu behar izan nituen.

Baina bueltan, 20 urterekin lizentziatu nintzen. Beraz, adin horrekin hasi nintzen hementiaren dendarri ezin nion behar adina atentzioa eskaini. Beraz, dendarekin jarraitu eta jostintza utzi nuen.

Nolako garapena izan du jostundegiak urte hauetan?
Hasierako denda eta egungoak ez daukate zerikusirik. Lehen, jendea dendara hurbiltzen zenean denbora luze iraugo zuten arropa erostea zuen helburua, modak ez zuten garrantziarik. Gainera, ekonomiarik asko begiratzen zitzaion. Hastapenetan bi arropa klasea genituen. Batetik, alkandora eta galiza merkeak eta bestetik, kalitate handiak.

Erosleak dendara sartzen zirenean eta eskatzan zutenean, iganderako arropa eta

egunerokoa ezberdintzen zituzten. Gaur egun jendea etortzen da oraindik egun bereziatarako arropa eskatzu, baina gehienbat jende heldua izan ohi da. Jende gazteak, berriz, kalitate bereko arropa jartzen du astelehen guzietan.

Egun gainera, jendeak oso ezberdin erosten du. Lehen, aipatu dudana bezala ekonomiarik asko begiratzen zitzaion eta epe luzearako arropa nahi zuten erosleak. Gaur egun ez da horrelakorik ematen.

Eta herriaren garapena nolako izan da?
Antzinako Lasarte-Oriak ez dauka zerikusirik egungoekin. Lehen, herrian lau etxe zeuden. Baina industriak erakiten hasi zirenean, esate baterako Michelin, jende ugari etorri zen hona bizitzera. Masiboki hazi zen eta herri txiki bat izatek hiri handia izatera igaro ginen.

Bezero aldetik nabaritu zen?
Bai noski. Oso urte emankorak izan ziren komertziantentzako. Denda gutxi zaudenean, guendek etekin handiak lortu genituen.

Normalean, garai haietan jendeak aparteko ordu ugari egiten zituzten. Dirua egin eta aurrezte zuten buruan.

Guretzako urte oparoak izan ziren. Izan ere, dirua mugitzen zen.

Nik 22-23 urte nituen orduan eta denda jendez gainezka gogoratzen dut.

Urte ugari, historia handiko negozioa izan da zuena. Sei urte geratzen zaizkizu jubilatuzko du?
Ez. Erretiratzeko naizenean denda itxiko dugu. Ez daukat negozioarekin jarraitu nahi duen ondorengorik.

Pena, ez? Hainbeste urtez irekita egondako negozio bat itxi behar izateak...
Egungo egoerak horretara eramango ditu negozio familiar gehienak.

Zaila da komertzio hauetarik bizi ahal izatea merkatal gune handiak ireki zituztenean.

Lasarte-Orian joera hori nabaria da. Aterpeak hastapenetan 50 bat komertzio zituen, eta egun 29 bakarrik gelditzen dira. Dendariek jubilatzen direnean, negozioa itxi egiten dute.

Etorkizun beltza ikusten diot herriko bizitza komertzialari. Lasarte-Oria lo egiteko herrian bihurtuko ez ote denaren susmoa hartzen hasi naiz.

“ Herrian industriak erakitzen hasi zirenean urte oparoak iritsi zitzaizkigun komertzianteei



<p>Juan XXIII, 10 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 362353 www.merceriaarilza.com</p>	<p>Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521</p>	<p>Iturrutia plaza 2, behe • Tel./Faxa: 943 360591 LASARTE-ORIA</p>	<p>Geltoki 2 • LASARTE-ORIA Idiazabal kalea 32 • URNIETA Tel.: 943 365846</p>
<p>Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria Tel.: 943 373134 jose@bideolagunak.com www.bideolagunak.com</p>	<p>Kale Nagusia 73 • Lasarte-Oria Tel. eta Faxa: 943 364599 www.fontaneribiayona.com pili@fontaneribiayona.com</p>	<p>Pablo Mutilozabal, 2 20160 Lasarte-Oria Tel./Faxa: 943 36 62 28 www.ekain.net</p>	<p>Aralar plaza 4 eta 6, behe • LASARTE-ORIA Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117</p>
<p>Geltoki kalea, 6 Telefona: 370848 LASARTE-ORIA</p>	<p>Nagusia 34 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 365626</p>	<p>Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384 Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945 www.izarrabitxitegia.com</p>	<p>Pintore kalea 7 • Lasarte-Oria Tel.: 943 376424 • Faxa: 943 376155 www.copisteriakalka.com</p>
<p>Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 372668 Faxa: 943 370737 patxilarranaga@telefonica.net www.patxilarranaga.com</p>	<p>Hipodromo etorbidea 8 (Anbulatorio zaharrena aurrean) Tel.: 943 366482 LASARTE-ORIA</p>	<p>Maiane Uistin 4 20.160 Lasarte-Oria Tlf. Fax.: 943 37 08 46 652 77 11 01</p>	<p>Loidi Kalea, 4 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 366 471</p>
<p>Hipodromo etorbidea 8 LASARTE-ORIA Tel.: 943 363665</p>	<p>Nagusia 21 • Lasarte-Oria Tel.: 943 361403</p>	<p>Hipodromo etorbidea 8 • Lasarte-Oria Tel.: 943 361885 Kale Nagusia 41 • Lasarte-Oria Tel.: 943 363912</p>	<p>Nagusia 46 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 370950</p>
<p>Nagusia 33 • Tel.: 943 361535 www.ormazaballoradenda.com</p>	<p>ALTZARIAK Geltoki kalea 13 • Lasarte-Oria 20160 Tel.: 943 370048</p>	<p>Nagusia 35 • Lasarte-Oria Tel.: 943 361195</p>	<p>Zirkuitu ibilbidea 10 (gasolindegiaurren atzean) Tel.: 943 362457 • LASARTE-ORIA</p>
<p>Nagusia Kalea 46 behe 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 371386</p>	<p>Juan XXIII plaza 2 behe Tel.: 943 364647</p>	<p>Ola kalea, 10 Lasarte-Oria 20160 Tel.: 943 366 377 www.dentalaldaz.com</p>	<p>Kale Nagusia 42 Tel.: 943 362979</p>

Kiroletako agenda

ATLETISMOA

Igandea 18

11:10etan, Iñigo Sevillano lasarteoriatarak Espainiako txapelketako 110 metro hesiekin proban parte hartuko du, Avilesen.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 18

8:00etan, Ostadarreko zikloturistak Lesakara egingo dute irteera.

PALA

SANTA ANA PALA TXAPELKETA

Astelehena 19

19:00etan, Jon eta Mikel Begiristain-Bernaiz Odriozola eta Shanti Martin
20:00etan, Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibar-Mikel Bardaji eta Xabier Etxezarreta

Asteartea 20

19:00etan, Xabier Otaegi eta Zigor Iriondo-Imanol Bardaji eta Iñigo Arluziaga
20:00etan, Ibon Azkonobieta eta Eneko Iradi-Carlos Garcia eta Mikel Arroyo

Osteguna 22

19:00etan eta 20:00etan, Final-erdietako partidak

ZALDI LASTERKETAK

Igandea 18

95. Zaldi lasterketa denboraldia
Donostiako Hipodromoan

2. jardunaldia, Gipuzkoako Foru Aldundia Saria

17:30ean, Igo lasterketa, SAYC AHOLKULARITZA SARIA, 1.300 m.

Flash Val	Victory
Gredos	Volcanico (IRE)
O'Kelly Hammer (IRE)	Gold Snake (IRE)
Sinan	

18:05ean, 2. lasterketa, GIPUZKOA OSTALARITZA SARIA, 2.200 m.

Indian Lou	Newman
Eusebio PS	Capital
Iraizotz	Rafsaidy

18:40ean, 3. lasterketa, GAZTAINGA SAGARDOTEGIA SARIA, 2.200 m.

Shumookh (IRE)	Iruz (IRE)	Winning Pleasure (ARG)
Zacarias (FR)	Royal Chop (FR)	
Smartside (USA)	Baroud de Coeur (FR)	Kentucky Mix (GB)
Fresneda (USA)		Vivement Dimanche (GB)
Carmanor (GB)	Shaktar (FR)	

19:15ean, 4. lasterketa, DIGITALAK, 1.600m.

Gintonic Doble (IRE)	Persian Lake (FR)	Penchaye (FR)
	Clifton (FR)	Cineronte (FR)
Alhaprince (IRE)	Le Big Boss (FR)	Nova San (IRE)
Persian Dancer (IRE)	Lou d'Elbeuf (FR)	
	Nova Lady (USA)	

19:50ean, 5. lasterketa, GIPUZKOA FORU ALDUNDIA SARI NAGUSIA, 2.200 m.

Aratan (IRE)	Della Robbia (FR)
Bottega (USA)	Pazifiksturm (GER)
Señor Miranda (GB)	Slick Knight (GB)

20:25ean, 6. lasterketa, ONDA VASCA SARIA, 1.600 m..

Enfia	Ticia Bere (FR)	Heragon
On the Dot (IRE)	Alvear	Almeria
Patricio (GB)	Gwendolina	Percus Crack
Miss Daniela (IRE)	Namia (FR)	Xamuray



Ostadar K.F.-ko atletismo saileko kideak Zumaia Flysh Trail mendi lasterketa hasi baino lehen, Arg.: J. Iparragirre

Lasarteoriatarak Zumaia Flysh Trail proban

Jose Ignacio Elvira izan zen herritarren artean azkarrena

Igandean, II. Zumaia Flysh Trail mendi lasterketa burutu zen eta 360 partaideen artean, Ostadarreko atletismo taldeko kide batzuk eta herritar batzuk ere egon ziren.

Lasterketako ibilbideak 27 kilometrotakoa zen eta itsasertzaren ondotik, Zumaia eta Deba artean dagoen Flysh-etik, hain zuzen ere, igaro zen.

Ostadarreko kideak azaldu zigitenez, "lasterketa oso polita izan da. Giro ederra egon da eta antolakuntza ere oso ona izan da."

Errekorrak hautsiz

Gizonezko proban, bigarren urtez, Raul Garcia izan zen irabazle. Gainera, ia berak ezarritako 1:54:31-tako errekorra hautsi zuen, 1:51:44 denborarekin. Bigarren sailkatuak ere, Aito Osak marka hori hautsi zuen, 1:53:23. Hirugarrena, David Lopez izan zen.

Emakumeen mailan, Ana Conde izan zen azkarrena eta honek ere ia Oihana Kortazarrek ezarritako 2:22:18tako denbora gainditu zuen, 2:19:08 lasterteketa ginez.

Anaren atzetik, Nerea Amilibia eta Blanca Serrano sailkatu ziren.

Herriko partehartzaileak

Lasarte-Oriako korrikalarien artean, Jose Ignacio Elvira izan zen azkarrena, 2:33:40 denborarekin.

Herriko ordezkariak eta haien denborak, hurrengoak dira: Juan M^a Marcos, 2:33:41; Ismael Hernández, 2:46:30; Pili Bodegas, 2:52:44; Joseba Iparragirre 2:58:44 eta Juan M^a Sarobe, 3:16:57. •

Kiroletako oharra

Udal Kirol Gunea itxita

Uztailaren 31, larunbata Udal Kirol Gunea, Mitxelingo gunea, publikoari itxita egongo da.

Egun honetan bazkideek beste udal kirol instalakuntzak edo Buruntzaldekoak erabiltzeko aukera izango dute nahi izanez gero.

Erabiltzaileeri jakinarazten zaie Lasarte-Oriako Udalaren Kiroldegia 31ean, goizez, zabalik egongo dela, 9:00etatik 13:00etara.

Udalaren Kirol-Instalazioak bi astean itxita

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioen 2010. urterako egutegiaren arabera, abuztuaren 1etik 15era bitartean, bi egunak barne, bi asteko geldialdi tekniko egingo da. Izan ere, instalazioetan mantenimendu eta garbiketa lanak egin behar dira.

Halaber, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioaren arabera, nahitaez egin beharreko ekintzak egiteko ere erabiliko da geldialdia.

Egun horietan Kirol Instalazioko abonatuak beste instalakuntza hauek erabiltzeko aukera izango dute, Urnietako kiroldegia 31ean, goizez, zabalik egongo dela, 9:00etatik 13:00etara.

Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei jakinarazten da, abuztuaren 8tik aurrera, Usurbilgo kiroldegia, telf. 943 372 498.

Instalazioen erabilpena

Udalaren Kirol Instalazioak entrenamendu eta txapelketarako erabiltzen dituzten talde federatu gehienek denboraldia amaitu ondoren, erabiltzaileeri ondoko hau gogora arazi nahi die Kirol Zerbitzuak, entrena-

men duen hurrengo denboraldia hasi bitartean, ordu librean aurkitzeko aukerak askoz ere handiagoak direla bai kantzak okupatu edo alokatzeko.

Buruntzaldeko Kirol Instalazioak

Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogorazten diegu, bazkideztza0k Buruntzaldeko edozein Udalarren Kirol Instalazio, edozein momentutan erabiltzeko bidea ematen duela, gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuaz. Era berean, jakin arazten da, Urnietako kirol instalazioak erabiltzeko derrigorrezkoa izango dela, bazkide txartelaz gain, taktikarako kandadua eramatea.

gunero

Erakusketa

PAISAIA AMETSETAN margo erausketa ikusgai Jalgin. Rudy margolariaren lanak dira. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Ostirala 16

Jaia

KARMENGO AMAREN EGUNA ospatuko da Oria auzoan. Goizeko 10:00etan Solano Musika Eskolako trikitilarien kalejira. Egurdiko 12:00etan berriz, meza izango da Karmengo Amaren kaperan Pilar Catalina sopranoa eta Amaia Dorronoro musikariarekin.



Erdi Aroko azoka asteburu honetan Brigitarren eta Dorre plazan

ERDI AROKO AZOKA ospatuko da asteburu honetan Lasarte-Orian. Artisauen postuak, haurrentzako txokoa eta hainbat ekitaldi Brigitarren eta Dorre plazan izango dira eta ordu-tegi honekin: goizez 11:00etatik 14:30era eta arratsaldez 18:00etatik 22:30era.

LARUNBATA 17 ETA IGANDEA 18
BRIGITARREN PLAZAN
DORRE PLAZA

Liburutegiko udako ordutegia

UZTAILAN

Goizez: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara

Arratsaldez: astelehenetan 16:00etatik 20:00etara

Larunbatetan, itxita

ABUZTUAN itxita egongo da



Manuel Lekuona kulturaretxea

Manuel Lekuona kulturaretxea
Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxari@txintxarri.info helbide elektronikora bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Añorgako Karmengo Jaiak

Ostirala, 16

11:00etan Meza nagusia.
17:30ean Arkaitz Añorgako Dantzarien emanaldia
19:00ean EGAN taldearen emanaldia.
20:00etan Haurrentzako mozerro festa.
21:00etan Orikiz mozerro festa.
23:00etan EGAN taldearen emanaldia.
23:00etan Kontzertuak gazte lokalean: Friday's Crew, Never Surrender eta Material Rechazado.
01:00etan Zezen suzkoa

Larunbata, 17

09:00etan Diana erraldoi eta buruhandiekien.
11:30ean Tiro txapelketa karabinaz.
11:30ean Artisauen lanen erakusketa.
12:30ean Bakailu prestaketa eta sagardo dastatzea.
17:00etan Xake lehiaketa.
17:30ean Haurren danborrada.
18:00etan Futbito txapelketa-kofinala.

20:00etan Danborrada nagusia.
23:00etan KUPELA taldearen emanaldia.
23:00etan Kontzertuak gazte lokalean: Single socks, Luz de Putas eta Blaka.

Igandea, 18

10:00etan Erraldoi eta buruhandien IV. topaketa
10:00etan Bola tiraketa
11:00etan Xake lehiaketa
12:00etan III. Patata tortilla lehiaketa.
16:00etan Jolas Etxea LVI. Pilota txapelketa finalak
23:30ean Bertso saioa.

Astelehena, 19

10:00etan Umeentzako taillerak Rezola museoa.
14:00etan Kuadrillen arteko bazkaria.
16:00etan Mus txapelketa
18:00etan "Pilota goxoko" txapelketa finala.
19:30ean Electrotzaranga
21:30ean Erromeria gazte lokalean UNSAIN anaiekin
23:30ean Bandera jaitsiera

Oharrak

Urrezko ezteiak

Mikeli Bengoetxeak eta Joxe Jauregik urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Ospakizuna uztailearen 16an, ostiralean, egurdiko 13:00etan Oriako Karmengo Amaren kaperan egingo den elizkizunarekin hasiko dute. Zorionak bikote!

Buruntz Azpiko galeper tiraketa

Uztailearen 31n Buruntz Azpi elkarteak Galeper Tiraketa (kaioan) ospatuko du. Aurreko urteetan bezala izen-ematea Buruntz-Azpi elkartearen bertan egin behar da; hamaketakoa egingo da.

Gasolina merkeago Aterpeko txartelarekin

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkarteak kanpaina berri jarri zuen martxan

asteartean. Honetan, Oriako Allerru gasolindegian despositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beharpena izango dute haien ordainketan.

Stock eta Saldoen III. Azoka martxan

Stock eta Saldoen III. Azokan parte hartzeko gonbita egiten die Aterpea merkatarri-elkartek herriko komertzioei. Azoka berezi hau aurten irailaren 25 eta 26an egingo da, Michelin Kirol guneko pilotalekuan.

Bertan bere produktua saldu nahi duenak, Aterpearekin jarri behar du kontaktuan, 637 955 030 eta 687 845 623 telefono zenbakien bitartez, edo itziariruzun@hotmail.com helbidera posta elektronikoki bat bidalitz.

Musika Eskolan matrikula egiteko epea zabalik

Lasarte-Oriako Udala Musika Eskolako matrikula egiteko epea uztailearen 1ean zabaldu zen. Aurrematrikula egin eta plaza duten herritarrek orain dute behin betiko izena emateko epea.

Matrikula egitera Manuel Lekuona kultur etxeko bigarren solairua joan behar da, goizez 9:00etatik 13:00etara eta azken eguna uztailearen 16a izango da.

Ola kalea itxita kale Nagusitik

Lasarte-Oria eta Usurbil udalerrien saneamenduko intertzeptore orokorreko lanak direla eta, Kale Nagusitik Ola kalerako sarrera itxita egongo da.

Era honetara, Ola kaleko mozketa dela eta, zirkulazioa

aldaketak egongo dira: Zumaburu auzorako sarrera elizaren ondotik izango da eta auzoaren iteera Erribera kale-tik. Zumaburu kalean kotxeen zentzua aldatu egingo da, beraz.

Kalean zentzuarekin gertatzen den bezala, garajeen sarrerak eta irteerak ere zentzuz aldatzen dira. Orain arte sarrera zena iteera izango da eta irteera zena, sarrera.

Alkatetzak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik eta bizilagunen laguntza izango duelakoan dago.



Santa Ana parodia

Aurtengo Santa Ana parodian parte-hartu nahi baduzu; aktore moduan (testuarekin edo gabe), atrez-zoan, dekorazioan, jantziekin... lagundu nahi baduzu, jo Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4), deitu telefonoz 943 371448 edo bidali mezua bat kultura@ttakun.com helbidera. Entsaioak hilaren 19an, astelehenean, hasiko dira kulturetxean 19:00etatik 21:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info



Arg.: EAB enpresa



Arg.: EAB enpresa

Haurren txokoa ederki gozatuko dute hurrek joko, torneo edo zaldiko-maldikoari esker.

Kale ikuskizunak, postuak, arabiar azoka... Erdi Arora denboran atzera egingo du Lasarte-Oriak.

Erdi Aroko giroan murgilduko da Lasarte-Oria asteburu honetan

Asteburuan, Erdi Aroko azoka izango da Dorre parkean eta Brigitarren plazan

TXINTXARRI

Santa Ana eta San Joakin eguna, uztailaren 26a, hurbiltzen doa. Egun horretako ospakizunak prestatzen hasi dira eta aurten berrikuntza bat dakar.

Izan ere, aldaketan urtea den honetan, Santa Anako artisau azoka Erdi Aroko azoka bilakatu da, *EAB Imagen y Comunicación* enpresaren eskutik.

Azoka

Asteburu honetan, azoka berezi honek Dorre parkea eta Brigitarren plaza hartuko ditu eta Lasarte-Oriako eremu horrek denboran atzera egingo du, Erdi Arora, hain zuzen ere.

Arabiar azoka, tabernak, postuak, haurrentzako txokoa eta artisauen lana zuzenean ikusteko aukera egongo da asteburu honetan. Gainera, guztia girotzeko kale ikuskizunak eta musika egongo dira azokako kaleetan zehar.

Azoka larunbata eta igandean egingo da, goizez

11:00etatik 14:30etara eta arratsaldean, 18:00etatik 22:30etara.

Kaleko ikuskizunak

Asteburuan zehar, arestian aipatu bezala, hainbat kaleko ikuskizunak eta musikak girotuko ditu azokako kaleak,

Larunbatean, 12:30ean, hasierako pregoia Errege familia berezi batek eta udal ordezkariak egingo dute.

Errege familia hori larunbateko kale ikuskizunen protagonista izango da. Argi ibili, erregearen oinordekoaren bila ibiliko baitira larunbatean azokara hurbiltzen direnen artean.

Igandean, berriz, izaki mitologikoak eta elizako hainbat pertsonai xeble ibiliko dira azoka kolorez, musikaz eta algaraz beteaz.

Honetaz gain, azpimarragarria da, larunbata gauean, egingo den ikuskizuna, *Akelarrea*.

Honetan sua eta piroteknia batuko dira egunari amaiera ikusgarria emateko.

Postuak

Erdi Aroko azoka honek 60 postu izango ditu eta Dorre

parkea eta Brigitarren plaza artean banatuko dira.

Denetarik aurkitu ahalko da bertan, janaria, xaboiak, bitxiak, eskuz egindako produktuak, sendabelarrak...

Eta hainbat artisauak lana nola egiten duten ikusteko aukera paregabea izango da, haur eta helduentzat. Batzuetan gainera, ikusleek parte hartzeko aukera izango dute.

Udalak jakin arazi digunez, herriko artisauak ere parte hartuko dute bertan eta haien produktuak ikusi eta erosi ahalko dira.

Haurren txokoa

Etoko txikiak ere, primeran egoteko aukera dute haientzat bereziki jarritako txokoa.

Bertan, milaka gauza izango dituzte egiteko. Arrantzan egin, dametan edo xakean jokatu, minigolfean edo bola jokoan ibili...

Honetaz gain, torneo berezietan parte hartzeko aukera izango dute azokara hurbiltzen direnek, hala nola, zaku lasterketan, arku-tiroan edo zaldi gaineke zinta.

Gainera, haurren txokoa, Erdi Aroko magoaren ikuski-

zuna izango dute bi egun hauetan, 12:00ak eta 20:00ak aldera.

Eta Erdi Aroko zaldiko-maldiko batean igo ahalko dira azokara hurbiltzen diren haur eta gaztetxoak.

Bestalde, haurrek azoka era berezian ikusteko aukera izango dute, poney baten gainean.

Azokako antolatzaileek jakin arazi dute, zaldiko-maldikoa, ponyen paseoa, taillerak eta musika azokako ordutegian soilik egongo direla. •



Larunbata gauean, sua, piroteknia eta antzerkia batzen dituen *Akelarrea* ikusteko aukera egongo da. Arg.: EAB enpresa

Arabiar azoka, tabernak, postuak, haurrentzako txokoa eta artisauen lana zuzenean ikusteko aukera